

Noaua !!

www.noaua.com



Santio eta Sanestebango
jaien egitarauak



Abendura bitarte luzatuko dira
Kale Nagusia berritzeko lanak



48,50€

3.urteurreneko menu berezia San Inazio bezperan

Bazkaria.

Bakailu entsalada
Ontto freskoak plantxan
Arkumea ensaladarekin

Tarta helatuarekin eta Cava
Edariak eta Cafea
Musika.

Kupela taldea 17etatik 20etara.

Gutxituen BAZKARIA

uztailak 21 ostirala

Festa, opariak ...

Eguneroko menua.

Astearte-ostiral gaua barne.

Asteburuko menu berezia
Arkume eta txerrikumearekin.

25€ eta 30€

Olarrondo Jatetxea

5 zenbakia. USURBIL

☎ 943 360 376

Txirrikitutik !!

1 957an Aginagako traineruak Kontxako bandera lehen aldiz irabazi zueneko argazkia duzue ondoko hau. Argazkia Juanito Illarramendik atera zuen, Aginaga bertan. Taldeak 44 minutu eta 6 segundotan burutu zuen bi igandetako jarduna. Atzetik berriz, San Juan eta Pasai Antxo sartu ziren. Argazkian agertzen direnak bandera irabazi zuten arraunlari batzuk eta zenbait herritar ageri dira. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera hasita hona hemen protagonisten izen-abizenak: Juanito Iturain, Bautista Oliden (arraunlaria), Kandido Mairoz (aginagatarrekin ateratako San Pedroko arraunlaria), Julian Pikabea (arraunlaria), Daldagorriko morroia, Jose Mari Zubeldia, Ramon Arreseigor "Trabuko" (patroia), ezezagun bat, Antonio Oliden (arraunlaria), Txomin Arruti, Martin Errasti (arraunlaria), Jose Luis Miralles, Agustin Begiristain, Jose Aranburu (arraunlaria), Jose Antonio Etxeberria (arraunlaria), Euleterio Errasti, Andres Bruño (delegatua), aginagatarrekin ateratako San Juaneko arraunlaria, ezezagun bat eta Emilio Ikutza.



Argazkilaria: Juanito Illarramendi, 1957, Aginaga
Argazkia: P.A.

Zaloe Arnaiz Ibarguren
zaloe@usurbil.com

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloe Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Denborerri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATUKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

USURBILGO II. CRITERIUM-A **5. OR.**

UDARREGI IKASTOLAREN ETORKIZUNA **6. OR.**

NOAUA! ERE, OPORRETAN **11. OR.**

NOAUA!ko langileak oporretara goaz. Irailaren 8an argitaratuko dugu datorren alea. Webgunea, ordea, martxan izango da: www.noaua.com.



KALE NAGUSIKO LANAK **12. OR.**

ASPEK ASIER ARRUTI FITXATU DU **15. OR.**



Gipuzkoako
Foru Aldundia
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ika-mika

Zubietako Herri-Batzarraren norabidea

Aurten ere konturatu baino lehen Santioak gainera etorri zaizkigu. Iazko urtean festak hasterako pankarta bat jarri zen, eta horrela zioen; "Zertarako behar du Donostiak Zubietak?". Aurten ere lelo berdineko pankartarik ez legoke soberan, baino zer edo zer gehiago erantsi beharra litzaioke.

Sarritan donostiarretaz kexu azaldu gara, Donostiako beharrak denen gainetik jartzen dituztelako, nahiz eta horrek Zubietako izaera ezabatzea ekarriko balu ere. Hau dena horrela da, baina Usurbil, zein da Usurbilen jarrera Zubietarekiko edo Zubietako Herri-Batzarrarekiko?

Usurbil herria askoz ere gertuago dauka, eta geureagoa sentitu arren, ezer gutxi egiten ari da Zubietako izaera Donostiako erasotik babesteko. Behin baino gehiagotan Zubietako Herri-Batzarrak laguntza eskatu dio, bera bakarrik oso txikia baita horrelako erraldoiaren aurka egiteko.

Hau gutxi balitz, Zubietako Herri-Batzarraren papera nahiz eta oso egokia iruditu eta Zubietako Distritoa edo Barrutia osatzeko oztoporik ez dituela jarriko esan, ez dauka inongo asmorik guri ezer erabakitzen uzteko, ez eta gure erabakiak aintzakotzat hartzeko.

Zubietako Herri-Batzarrak helburua garbia du, hau da, zubietarren interesak defendatzea. Horretarako elkarlana ezinbestekoa ikusten dugu. Asko kosta eta gero lortu genuen lehengo martxoaren 20ean, Donostiako eta Usurbilgo ordezkariekin bilteza. Lehen bilera horretan bi alkateak eta beste zinegotzi bana, bertan izan ziren. Gure nahia batzar horiek iraunkorrak izatea zen, hilean behin edo gutxienez bi hilabetez behin biltzea, eta Zubietarekin zerikusia luketen gai guztiak bertan jorratzea. Baina askotan bezala, gure asmoak zapuztuak izan dira. Bi hilabete itxaron behar izan dugu, bilera hartako akta eskuratzeko. Nahiz eta konpromiso batzuk akta batean idatziak egon, ez da ezer bete, eta gainera ez da beste bilerarik egon.

Usurbilgo Udalaren jarrerara bueltatuz, bere portaera salatu beharrean gaude. Une honetan diru iturria moztu eta Herri-Batzarra ito nahian dabil. Nahiz eta dirua Zubietarako izendatuta egon, bere iritziare-

kin adostasun osorik ez badago, ezezko borobila jasotzen dugu eta bien bitartean ez dute ezertxo ere egiten. Are gehiago, auzolanean egiten zen bide garbiketa ezabatu zuen, eta nahiz eta askotan agindu duten 2004koa ordainduko zutela, hori ere ez dute egin.

Honen adibidea egungo egoera da:

Usurbilen dagoen diruaren zerrenda Zubietan gastatzeko, hauxe da:

-2003 urtekoak 22.342 euro (frontoi atzeko lokalentzako izendatuak erabili gabe).

-2004 urtekoak 43.482 euro (lokal berdinentzako. Hau erabiltzen ari da).

-2005 urtekoak 136.336 euro (hauetatik 12.000 inbertsio ataletik Herri-Batzarreko gastu arruntera pasatzeko erabakia hartua, baina ordainketa egin gabe dagoena).

-2006 urtekoak 100.000 euro inbertsionarako eta 6.475 euro Batzarreko gastu arrunterako. Hau guztia gastatzen hasteko.

Diru hauetatzen gain beste kantitate batzuk agindu ziren Zubietan egindako bilera batean frontoi atzeko lokalarentzako. Alde bateatik 48.000 euro Behemenditik eta beste 40.000 euro Donostiako udaletik. Nahiz eta kantitate horiek aginduak izan, Behemendiren zatiak lerra dezentea izan omen du, oraindik ez dakigu zenbatekoa, eta Donostiakoa berriz ez dugu ikusi. Nola Herri-Batzarrak ez daukan gaur egun entitate juridikorik, ederki etortzen zaie bere esku ezertxo ez uzteko. Gainera ez dugula ezer aurkeztu zertan inbertitu esaten hari dira.

2005 urtea hasi aurretik Zubietako Herri-Batzarrak aurkeztutako plangintzan, hurrengo aurrekontua aurkeztu zen:

1. Herri-Batzarraren aholkularitza tekniko: 18.000 euro.

2. Zubietako Garapena aztertze hurrengo 15 urterako Plan Estrategikoa: 33.000 euro.

3. Konpostatzeko gune pilotua egiteko

-Proiektua eta jendeari erakusteko eman behar diren ikastaroak eta abar: 36.000 euro.

-Aurrera emateko plana 421.000 euro.

4. Infrastrukturetarako

-Hipodromotik kaskoraino bidea egiteko (proiektua egin omen dago) egitea.

-Artzabaletako bihurtzea konpostatzeko (proiektua baita egin dago) egitea.

-Erreboteko plaza berritzeko proiektua 17.800 euro.

-Frontoi berriaren hornidura 36.000 euro.

-Urbanizazio berriaren eta bide sarearen loturak egokitzea egitea.

-Buruntzako mankomunitateak bultzatutako bide sarea egokitzea egitea.

5. Ekipamenduak

-Zubietako urbanizazio berriaren jardina konpostatzeko diru partida.

-Frontoi berriaren inguruan eta Alamandegia aurrean bizikletak lotzeko ekipamenduak.

-Zubietako osorako saneamendu sarea bideratzea.

-Zubietako osorako gas hornikuntzaren proiektua egitea, urtean zatika egin ahal izateko.

-Konpostatzeko Plan Pilotua egiteko, zaborraren zati organikoa bereizita biltzeko proiektua.

6. Zerbitzuak

-Frontoi berriaren ondoan egindako komun publikoak eta aldagelak garbitzeko langile baten beharra.

-Papelaren garbitasuna eta beste zerbitzu guztiak zein udaletxe egin behar dituen adostea.

-Autobus zerbitzua hobetzea.

2006an ere beste antzeko plangintza aurkeztu genuen, gauza batzuk erantsiaz. Hauetako bat 6.000 euro gordetzen genituen Zubietako pilota elkartearentzako. Beste herri batzuetan bezala, umeak eta gazteak kirol heziketa egokia izateko, entrenatzaile profesional baten beharra ikusten genuen.

Badakigu hau dena urte batean egitea gehiegi dela Usurbilgo herriarentzako, baina hiru aldeak osatutako mahai horretan lehen-tasunak jarri eta urtez urte zer edo zer eginez joatea da gure nahia. Orain ere horretan gaude, dauden diruak xahutu arte, aukerarik ematen badigute behintzat. Okerrena da, erantzunik ere ez dugula jasotzen

Zubietako Herri Batzarra.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

www.noaia.com
USURBILGO ATARIA

Uztailaren 23an Elbarrituen Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketa Usurbilen

Iazko irailean eta Amador Granado txirrindulariaren ekimenez, elbarrituentzako Lehen Criterium-a antolatu zen Usurbilen. Ikusgarria izan zen lasterketa eta zaletuek adi-adi jarraitu zituzten txirrindularien ibilerak. Arrakasta izan zuenez, igande honetan uztailak 23, Usurbilgo Bigarren Criterium-a izango da jokoan. Criterium honetan, gainera, Gipuzkoako Txapelketa izango da jokoan.

Iaz, Severiano Mata txirrindulari galizarra izan zen garailea. Berarentzat izan zen sari nagusia.

Amador Granado usurbildarra bigarren izan zen lasterketan, baina lehena bere mailan. Ez hori bakarrik. Lasterketako lehen gipuzkoarra izan zen eta hori dela eta, Gipuzkoako Txapelketa berarentzat izan zen. Aurten, bigarren ez eskuratu nahi du txapelketa.


Elbarrituen mailan, onenetakoa da Amador Granado. Europako txapeldun-ordea izandakoa, Munduko Txapelketan eta Joko Olinpikoetan ere hartu du parte. Irailaren 7an, Suitzan jokatu den Munduko Txapelketarako hautatu berria izan da. Zorionak!



IAZ BEZALA, AURTEN ERE 20
IZANGO DIRA PARTEHARTZAILEAK.

Errepidea itxi egingo da ordubetez

Uztailaren 23an igandea, goizeko 11:00etan hasiko da txirrindulari lasterketa. Ibilbidea aldameneko irudian duzue. Kiroldegitik abiatu eta kiroldegian amaituko da criterium-a. Txirrindularien segurtasuna ziurtatu asmoz, errepidea itxita egongo da ordubetez, 11:00etatik 12:00etara. Beraz, inguruko garajeetako jabeek ohar hau luzatu nahi diete antolatzaileek: kotxea 11:00ak baino lehen atera garajetik. Bestela, eguerdiko 12:00ak arte ezin izango dute atera.



GARAJEETATIK EZINGO DA AUTORIK ATERA 11:00ETATIK 12:00ETARA.

ITURGINTZA
JOSEBA ARANGUREN
943 830 072
659 883 912

milorri
lortzen ditza ekologikoa
mantenimendua, diseinua
eta aholkularitza
Bonda berr, 10 - Usurbil
660 154 114/699 152 282
milorri@usurbil.com

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
Kamiseten inprimaketa
943 371 954
USALDEA POL.36-2-USBIL

Knk l
- l. ntz r
Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
luzan k
Zubiaurrenea, 3 33 17 7

Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria

“Epe ertain batean, eraikin berri bat beharko genuke”

Oporraldian lanean jarraitzen duen langile horietakoa da Mariaje Imaz. Udarregi ikastolako zuzendaria denak abuztuan hartuko ditu oporrak. Bien bitartean, karpeta ugari ditu mahai gainean. Honakoan, etorkizunaz galdezka hurbildu gara Mariaje Imaz Udarregi ikastolako zuzendariarengana.

NOAUA! Datorren urtean ere, gora egingo du ikasle kopuruak Udarregin.

Mariaje Imaz. Bai, gero eta ikasle gehiago ditu Udarregik. Herrian dagoen ikastetxe bakarra geurea da eta aspaldiko urte hauetan sumatzen ari gara hazkunde hori.

N. Azpiegitura nahikoak al ditu gaur egun ikastolak?

M. I. Beharbada beste eraikin bat ere beharko dugu, dauzkagunetan justu samar sartzen garelako eta aurrerantzean ikasle kopuruak handitzen jarraituko duela ikusten ari garelako. Ditugun datuei buruzko azterketa bat egiten ari gara Artezkaritza Kontseiluan, bertako guraso baten laguntzaz.

N. Epe erdira, beraz, eraikin berri bat beharko litzateke?

M. I. Premiazkoa bada, denok dakin gunez, egun batetik bestera ez da eraikin bat altxatzen. Guk ez ditugu eskuak harrapatu nahi gai honekin. Aurreko ikasturteetan ikastola adostasun batzuetara iritsi zen udalarekin espazio fisikoen erabilpenari dagokionean. Akordio horien arabera, Agerialden dauden Lanbide Hastapena eta EPAko gelak udalak beste lokal batzuetara pasako lituzke eta gela horiek ikastolaren erabilpenerako geratuko lirateke. Datorren ikasturtean oraindik Lanbide Hastapenak eta EPAk Agerialden jarraituko dute baina aurreko egindako obrari esker datorren ikasturterako genituen



MARIAJE IMAZ, UDARREGI IKASTOLAKO BULEGOAN.

beharrak neurri batean ase ahal izango ditugu.

Kontuan hartu behar da datorren ikasturtean hiru urtekoentzat hiru gela izango direla. Orain bi lerrotako ikastetxea gara baina horrela jarraituz gero, ikusten ari gara agian hirukoaren bidean jar gaitezkeela. Maila bakoitzeko hiru ikastalde egongo direla, alegia. Horrek, ematen ari den hazkundera adierazten du.

MARIAJE IMAZ

“Eskaintza on bat egiteko azpiegitura egokiak behar dira”

N. Datu esanguratsua eta objektiboa jaiotze-tasarena da. Azken urte hauetan goraka egin du eta gorakada horrek ez dirudi etenik izango duenik, ez behintzat epe laburrean.

M. I. Eta kontuan izan zenbat etxebizitza eraiki nahi diren. Etorriko den jendea jende gaztea izango bada... Alde batetik hori eta bestetik, ikastola herriko ikastetxe bakarra izanik eta azken ikasturteetako joeraren arabera, ikastolara ekarriko lituzkete beraien haurrak. Azkeneko urteetan ikusi da Usurbilgo haurren %92a Udarregin matrikulatu dela.

Egoera aztertzen ari gara baina jada pentsatzen ari gara epe ertain batean behintzat, eraikin berri bat beharko genukeela.

N. Agerialdez ari gara hizketan. Baina Udarregiko eraikina nola duzue?

M. I. Justu samar gabilta. Hemen ere, espazioa badago baina toki batzuk agian ez daude guztiz aprobetxatuta: beheko sotoaren egoera...

N. Eraikin berriaren balizko kokagunerik edo pentsatu al duzue?

M. I. Guretzat egokia izango litzateke hemen inguruan egitea (Udarregi ondo-

an), baina horretan ni ez naiz ausartzen ezer esatera. Beharra behintzat badago. Alkatearekin azkenekoan egon ginenean adieraztera eman genion nolako hazkundea ematen ari den eta ikusten dela eskaintza on bat eman nahi badiogu herriari behar dela azpiegitura egokia. Herriari begira ere, ikusten bada jaiotze-hazkunde horrek gora egiten jarraituko duela, zerbitzuetan ere aurreikusi egin beharko dela egoera: bai osasungintzan, bai aisialdian, bai kultur zerbitzuetan...

Hezkuntza arloan eskaintza on bat egin ahal izateko espazioen egokitasuna lehentasunezko gaia da. Eta orain nahikoa eskas gabiltza. Batez ere Agerialdeko espazioan ume asko mugitzen da, eta eraikin hori ere zaharra geratu da. Gaur egun betebeharrak asko daude segurtasun eta prebentzio neurriei dagokienean. Berrikuntzak ere egin behar dira. Pentsa haur txikiak bi urterekin hasten direla, eta horiek ere behar dituzten espazioak beste era batekoak behar dutela izan.



DATORREN IKASTURTEAN 578
IKASLE IZANGO DITU UDARREGIK.

Dena den, Agerialden egin berri den eranskinean alderdi horiek kontuan hartzen ahalegindu gara guztiok.

Bi urte barru 600dik gora izango dira Udarregiko ikasleak

Datorren ikasturtean, 578 izango dira Udarregin hasiko diren ikasleak. Mariaje Imazek esan digunez, "aurten 550 ikasle izan ditugu eta azken urteotan ez da jaitzierarik eman matrikulazioan". Beraz, joera goranzkoa dela esan daiteke. Udarregiko zuzendariaren ustez, "hazkundea nabaria da. Hemendik gutxira, 600-700 ikasletan jarriko gara eta jada salto handia da". Hortik dator Udarregi ikastolako kudeatzaileen hausnarketa.

"Gero eta ikasle gehiago dira ama-hizkuntza gaztelera dutenak"

NOAUA! Amaitu berri den ikasturtean etorkin asko izan al dituzue?

Mariaje Imaz. Bai, egon dira. Kopuru aldetik, gutxi gora behera, besteetan bezala. Aurten, ikasturte osoan zehar hamazazpi izan ditugu. Baina badakizu, ikasturtea hasita etortzen dira sarri, edozein urte-garaian. Printzipioz, datozen guztiak hartzen ditugu eta, noski, gogo handiz.

N. Administrazioaren laguntzak iritsi al dira?

M. I. Lehengoan iritsi zitzaigun

ohar bat esanez orain arte ematen zituzten laguntzak handitzera doazela; horren zain gaude orain. Ikasturte honetarako 13.000 euro emango dizkigute eta beraien aurreikuspenetan da gutxienez beste hainbeste ematea ikasturte berrian. Nik uste dut administrazio aldetik aurrerapausoak eman nahi dituztela gai honetan, eta pixkanaka-pixkanaka ari dira (...).

Honi lotuta, euskararen egoera dago. Gero eta ikasle gehiago dira ama hizkuntza gaztelera edota eus-

kara ez dena dutenak, eta pentsatzen dugu herri mailan ere zerbait egitea garrantzitsua litzatekeela. Ikastolan dauden garaian, euskararen ikaste-irakaste prozesuan lantzen eta trebatzen laguntzen diegu baina ikastolatik kanpo ikusten da gero eta gehiago gaztelera erabiltzen dela.

Gai horren inguruan sortzen diren egoerekin nahikoa kezkatuta gabil-tza, eta gustatuko litzaiguke behintzat, herriko udala, talde eta elkarte ezberdinekin batera gaiak hausnartu eta proposamenak aurrera ateratzea.

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA
Kale Nagusia, 1
Tel./Faxo: 943 365 125
Móbil: 629 420 565 - 649 435 470

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Juanjo Allur, ikastolako Artezkaritza Kontseiluko kidea “Etorkizunerako planifikazio lan bat egin beharra adierazi dio ikastolak Udalari”

Juanjo Allur Udarregi ikastolako gurasoetako bat da. Ikastolako Artezkaritza Kontseiluko kide ere bada. Azken urteetan herria handitzen joan den arren, “eztabaida ez da zerbitzu gehiago behar diren edo ez bakarrik baizik eta nolako herri eredia nahi dugun”, adierazi digu Juanjo Allurrek.

NOAUA! Agerialdeko eraikina handitzeko lanak udaberrian hasi ziren. Azpiegitura mailan, egoera onean al da Udarregi ikastola?

Juanjo Allur. Azken ikasturtean Agerialdeko eraikinean egiten hasitako obrak behar beharrezkoak ziren, orain arteko lanak txukun bideratu dira eta erabat amaitzen direnean, instalazio alde-tik hobekuntza nabarmenak ekarriko ditu ikastolarentzat. Hala ere obra horien bigarren fase bat oraindik egiteko dago eta datorren ikasturtean ere lanean ari diren beharginei begira, gure haurrek izango dute entretenimendua. Dударik gabe Agerialdeko berrikuntza lanak egin beharrekoak ziren; izan kontuan Agerialdeko eraikina hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasierakoa dela, zaharkitua geratzen ari zela eta ikastolak espazio berriak behar dituela. Ikasgela modura eta gainerako erabileretarako ere toki eskasia nabarmena zen: ikasle-taldeak bitan banatu ahal izateko, errefortzu edo laguntza saioetarako gelak, ume txikientzat bazkalosterako atsedeen gela,...

JAIOTZE-TASA, GORA

90eko hamarkadan batz bestea 40 haur jaiotzen ziren, azken urteotan 70

Bestalde, Agerialdeko eraikina ez zegoen ezinduentzat egokitua eta hutsune horri aurre egiteko obrak ere egin dira. Egindako obrez gain orain Agerialden Lanbide Hastapenerako eta Helduen

Prestakuntzarako erabiltzen diren gelak ere ikastolak erabiltzeko moduak egingo ditu udalak. Beraz, ikastolak egun duen 550 ikasle inguruko dimentsio horrekin zerbitzu on bat eskaini ahal izateko, azpiegitura aldetik baditu garantiak. Beste kontu bat da ordea, Usurbilen etxebizitza berrien oraingo eraikuntza erritmo azeleratua ikusita hemendik ez urte askotara berriro ere azpiegitura arazoak izatea.

N. Jaiotze-tasak, gainera, goranzko joera hartu du azken urteotan, ezta?

J. A. Ongi ikusi eta aztertu beharreko kontua da biztanleria aldetik Usurbilgo herriak zein martxa hartzen duen eta goranzko joera erakusten badu demografikoki jende gazteak hartuko duen pisua edo ez. Azken urteetako datuek argi erakusten dute herria handitzen ari dela eta biztanleko jaiotza tasek ere gora egiten dutela; 90eko hamarkadaren hasieran urtean 40 haur inguru jaiotzen ziren bezala, orain 70 jaiotzarako buelta horretan gabiltza. Usurbilen Lehen Hezkuntzatik gorako eskaintza bakarra Udarregi ikastolak egiten duena izanik pentsa daiteke ez urte asko barru orain erabiltzen diren bi eraikinekin ez dela nahikoa izango. Guraso bezala eta ikastolaren gestiorako ere, etapa bakoitzerako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eraikin bana izatea ez dut uste bidegabekeria bat litzatekeenik. Edonola ere ikastolako Artezkaritza Kontseilua ari da etorkizunerako proiektzioak egiten eta udalarekin elkarlanean arituz ekipamendu beharretaz hausnarketa bat eta bide berri bat egin beharra izango da.

N. Etxebizitza ugari aurreikusi ditu Usurbilgo udalak. Baina honen guztia-ren inguruan ekipamendu eta zerbitzu gehiago izango ote diren ez da zehaztu oraindik.

J. A. Etxebizitza inguruko Udalaren asmo eta proiektu horien aurrean etorki-



AGERIALDEN LANEAN JARRAITZEN DUTE EGUNOTAN.

zunerako planifikazio lan bat egin beharra adierazi dio Udarregi ikastolak Usurbilgo udalari. Arau subsidiarioetan etxebizitzetarako onartutako lursailak asko dira, etxebizitza asko eraiki daitezke eta lehenago ez bada beranduxeago badi-rudi eraiki egingo direla. Hazkunde horrekin herriak irabazi eta galduko duen artean oreka bati eutsi beharko litzaioke, urbanizazio eta etxe berriez aparte “herri” bat egiten duten bestelako zerbitzu eta parametroak ere kontuan hartu behar dira. Eztabaida ez da zerbitzu gehiago behar diren edo ez bakarrik baizik eta nolako herri eredia nahi dugun. Hirigintza alorrean hartu erabaki eta neurriek herriaren etorkizunean eragin zuzena dute eta erabaki horiekin batera hezkuntza, gizarte ongizate eta kultura alorrerako proiektuen aurreikuspenak ere egin beharko lirateke. Horrek guztiak bete betean harrapatzen du Udarregi ikastola noski eta zenbat eta lehenago heltzen zaion gaiari, orduan eta hobeto; guztion mesedetarako izango da, bai gurasoontzat, bai ikastolarentzat, bai Usurbilgo udalarentzat eta baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat ere. Horra hor bada guztiontzako erronka eta itxaropena.

Luismari Ormaetxea alkatea

“Epe laburrera hezkuntza beharrei buruz hausnarketa estrategikoa garatuko dugu ikastolarekin”

Luismari Ormaetxea alkateak esan digunez, “udal gobernuak etorkizuneko Usurbil oso garbi irudikatu du”. Baina beste arloetan bezala, hezkuntzan ere egokitzapenak egin beharko direla aitortu digu alkateak.

NOAUA! Agerialdeko eraikina hantitzeko lanak duela hilabete batzuk hasi ziren. Ikasturte berrirako prest izango al da?

Luismari Ormaetxea. Ikastolak lau gela berri erabilgarri izango ditu kurtso hasieran. Komunak ere berrituko dira udaran zehar mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokituz. Teilatua guztiz berria eman zaio, hezetan eta filtrazio arazoak konponduz eta aislamendua hobetuz. Irisgarritasuna hobetzeko eta larrialdi egoerarako eskailera egitea faltako litzai-guke. Azken hau nork egingo duen esleipen edo adjudikazio prozesuan dago. Epe laburrean eraikitzen hasteko moduan.

LUISMARI ORMAETXEA

“Ikastolak lau gela berri erabilgarri izango ditu ikasturte hasieran”

N. Etxe berriekin batera, jende gehiago iritsi da Usurbila. Olarrondo eta Ugartondoko promozioekin gainera, populazioak gora egingo du nabarmen. Bada beste datu esanguratsu bat ere. Jaiotze-tasaren joera goranzkoa da.

Udal gobernuak egin al du etorkizuneko hausnarketarik? Etxe berriak bezala, aurreikusi al da hezkuntza arloan ekipamendu edo azpiegitura berririk?

L. O. Udal gobernu honek etorkizuneko Usurbil oso garbi irudikatu du. Eta konkretuki nere talde politikoak, Eusko Alkartasunak, jada publiko egin zuen, eskuorri batzuen bidez, orain dela 8 urte Usurbil nolakoa izan behar zuen etorkizunean. 2015 urtea jartzen genuen muga bezala.

Aurreko legealdietan etxebizitzaren gaiari beldurrez ekiten zitzaion, arrisku bat bezala planteatzen zen; guk ordea aukera bat bezala ekiten diogu, etxebizitzaren politika ausarta bat planteatuz. Honek, noski, ondorioak ditu: udal barne zerbitzuak egokitu beharra, trafiko kudeaketa eta herriaren irteera-sarreak egokitu beharra, atsedean lekuak, merkataritza politika bat izatea, kirol zerbitzuak gehitzea, pertsona nagusientzat irisgarritasun arazoak murriztu eta aisirako zerbitzuak sortu, hezkuntza zerbitzuak egokitu, eta abar luze bat. Guzti honetaz oso kontziente gara eta burubelarri gabilta egokitzapen horiei erantzun nahirik.

Eredu bezala hor ditugu, jada: Artzabal zahar-egoitza berriaren proiektua (epe laburrean obrak hasiko dira), Haur Eskolaren zabaltzea (inguruko herriekin konparatuz, zerbitzu-tasa altuenetarikoa), kale eta plazen berritzea (Kale Nagusia, Eguzkitza, hurrengo Munalurra), udal langileen organigramaren egokitzapena (momentu honetan sindikatuarekin negoziatzen), merkatariekin sortu dugun mahaia, epe laburrean



LUISMARI ORMAETXEA ALKATEA, IAZ SUTEGIN ATERATAKO ARGAZKIAN.

ikastolarekin hezkuntza beharrei buruz garatuko dugun hausnarketa estrategikoa, eta ahaztuko zaidan baten bat.

Hori guztia gutxi balitz, Olarrondo eta Ugartondo promozioetan gauzatuko diren etxe babestuentzat 680 eskakizun jaso ditugu, beraz, etxebizitza politikak egokitzapen berri bat behar du, ausardia gehiago, benetan herritarrei erantzun nahi badiegu.

ERREPORTAJEA: IMANOL UBEDA



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligona
Aitzezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Kalkos kopisteria

FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan

BANDERA
SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

“Gure Oihua”, Mendeku Itxuaren disko berria

Bi urte dira kantak sortzen hasi zirela eta hiru hilabete eman dituzte diskoari begira lanean. Mendeku Itxua taldeak laugarren postua lortu zuen 2005eko Euskadi Gaztearen Maketa Lehiaketan, "Lehortu gabeko malkoak" abestiarekin finalera iritsi eta gero. Orain, diskoa atera dute, "Gure Oihua" izenekoa. Ekainaren 25ean irten zen kalera, "Ortots" zigilu independien-
tearen babesean.

“Orain arte egin dugun lana hor dago, disko horretan”, esan digute diskoa definitzeko eskatu diegunean. Estilo baten barruan abestiei ahalik eta antzekotasun gutxien ematen saiatu direla aitortu digute; erritmo aldetik, akordeetan... “Ahotsarekin jolasten dugu, punteoak badaude, bateriaren soloren bat badago, baxuarena ere bai... denetik dago”. Kantuak logika baten barruan egiten saiatu dira, egitura logikoarekin eta letren eta doinuen arteko lotura landuz.

Datozen hilabeteak, hala ere, ez dira errazak izango taldearentzat. “Orain arte gure baxu jolea izandakoak, Axierrek, utzi egingo du taldea, disponibilidade faltagatik”. Taldea orain beste baxu jole bat bilatu beharrean aurkitzen da, eta gaur egun oso zaila dela diote. Pare bat musikari dituzte ikusmiran, baina oraindik dena hitz egiteko dagoela esan digute. Taldean



**DISKOA SALGAI DAGO IRRATI ETA ARDI BELTZ TABERNETAN.
INTERNET BIDEZ ERE ESKURA DAITEKE.**

aurrera joateko prest egongo den bat beharko dute. Hiru edo lau kontzertu eta gero, denboraldi bat isilean egongo da Mendeku Itxua. Hori bai, Usurbilen Asierrekin azken kontzertu bat eman nahi dute. Isilune hori erlatiboa izango da, baxu jole berria topatzen dutenean berriz bueltatuko baitira zuzenekoetara. Deialdi bat egin dute, gainera: “Norbaitek baxua jotzen badu eta Mendeku Itxuan sartu nahi badu, gure webgunean sar dadila eta gurekin kontaktuan jarri”.

Hala ere, abesti berriak lantzen jarraitzen dute. Kontzertuetan diskoan ez

